

NAFARROAKO KRONIKA: ORVINA A-K MANTENTZEN DU BERE ABANTAILA OBERENA A-REKIKO.

2006.go urriaren 21ean Nafarroako Taldekako Xake Txapelketako hirugarren ihardunaldia jolastu zen.

MAILA NAGUSIA.

Orvina A eta Oberena A taldeek bazuten beste erronka bat haien arteko lehian. Paz de Ziganda Ikastola A zegokien lehenengoei eta Nuevo Casino (aurten iaz baino ahulago dago, bi jokalaria galdu dituelako) Oberena A-ri.

Orvinak 7 eta 1 irabazi zuen Atarrabian, nagusitasuna erakutsita. Hala ere, puntu garrantzitsua galdu zuen Gustavo Jiménez mahaian. Nafarroako txapeldunak Lehenengo Mailako Txapeldunaren aurka galdu zuen: Iñigo Elíaren aurka, hain zuzen ere.

Unai Garbisuk beltzekin Eduardo Burguete gainditu zuen. Miguel Radak txuriek Iker Ojerri irabazi zion. Sergio Navarretek beltzekin Adrián Lerános gainditu zuen. Horiexek izan ziren neurketarik aipagarrienak.

Oberenak ere 7 eta 1 irabazi zuen, Nuevo Casinoren etxean. Rafael Ruiz Escobar jokalaria beteranoak irabazi zion Borja Zamarbideri. Hori izan zen ustekabekoa. Beste garai batean normal joko genuen emaitza hau. Gaur egun, Oberenako gazte horrek partida hori galtzea jende gutxik espero izanen zuen.

Jesús De la Villak beltzekin Pedro Viñal gainditu zuen. Miguel Navarrok txuriek Joaquín Antúnezi irabazi zion. Mikel Huergak beltzekin José Manuel Redín gainditu zuen. Horiexek izan ziren lehiarik azpimarragarrienak.

Mikel Gurea Fonclimak hirugarren postua mantentzen du, Tuteran Santa Ana A taldeari irabazi ondoren (3'5-4'5). David Arjolek ez zuen jolastu. Hala ere, emaitza ona lortu zuen Burlatako taldeak.

Behelaldeari begira, Orvina B-Alekhine lehia garrantzitsua zen. Orvina B erraz nagusitu zen: 5'5-2'5. Eduardo Buenok hirugarren mahaian Javier Ayucar gainditu zuen. Horrek ordain dezake Lizarrako taldeak Txapelketaren bukaeran.

Sailkapena horrela dago:

- 1) Orvina A – 22'5 puntu.
- 2) Oberena A – 19'5 puntu.
- 3) Mikel Gurea Fonclima – 15 puntu.
- 4) Santa Ana A – 11 puntu.
- 5) Paz de Ziganda Ikastola A – 8'5 puntu.
- 6) Alekhine – 8 puntu.
- 7) Orvina B – 6'5 puntu.

8) Nuevo Casino – 4'5 puntu.

Alekhinek lanak izanen ditu ez jaisteko, lehenengo bi taldeekin oraindik jolastu gabe dagoelako.

LEHENENGO MAILA.

Kolpe ederra eman zuen Oberena Bk, igoeraren bila: 6-2 gaintitu zuen San Juan A. Oberena C bigarren postuan dagoenez eta hirugarren postura San Juan A bidalita (3 puntura), urrun ikusten du Gazte Berriak (laugarren sailkatua, 4 puntura).

Oberena Ck galdu zuen 3'5-4'5 Gazte Berriak Antsoingo taldearen aurrean. Lasai dabil, Oberena B igotzen bada, berak igotzerik ez duelako.

Runak berdinketa lortu zuen Tuteran Santa Ana B-ren aurka. Azkena dabil, baina ziur aski bere azken hitza ez du bota.

Etxarri Aranatzeko Zaldi Beltza taldeak Sancho el Fuerte-Tiebas taldeari irabazi zion (3'5-4'5). Ederki estutu zuen sailkapena, horrela. Lau talde puntu erdiko tartean daude eta horietako azkenak jaisteko sustapena jolastuko du. Runa ere ez dago urruti (puntu eta erdira).

Sailkapena horrela dago:

- 1) **Oberena B – 15'5 puntu.**
- 2) Oberena C – 13 puntu.
- 3) San Juan A – 12'5 puntu.
- 4) Gazte Berriak – 11'5 puntu.
- 5) Sancho el Fuerte – Tiebas – 11'5 puntu.
- 6) Zaldi Beltza Xake Taldea – 11 puntu.
- 7) Santa Ana B – 11 puntu.
- 8) Runa – 9'5 puntu.

BIGARREN MAILA.

Arrano Elkarteak aurrerapausoa eman zuen igotzeko lehian: Oberena D gaintitu zuen (3-1).

Mikel Gurea Iruña-Motor da orain bere aurkari zuzena. Talde honek 1'5-2'5 irabazi zuen Berriozarren.

Larre Bk emaitza eskasa lortu zuen Paz de Ziganda Ikastola B taldearen aurrean: 2'5 –1'5. Gainera, puntu erdiko zigorra jaso du, bigarren ihardunaldian aritu zen jokalaria baten dokumentazioa ez aurkezteagatik. Hala ere, talde honek zer erranik eman dezake gora begira.

Horrela dago sailkapena:

- 1) **Arrano Elkarte A – 10 puntu.**
- 2) Mikel Gurea Iruña-Motor – 9 puntu.
- 3) Oberena D – 8 puntu.
- 4) San Juan B – 7'5 puntu.
- 5) Berriozar – 7 puntu.
- 6) Larre B – 7 puntu.

- 7) Alaitz Xake Taldea – 7 puntu.
- 8) Arrano Elkartea B – 6'5 puntu.**
- 9) Oberena E – 6 puntu.
- 10) Orvina C – 5'5 puntu.
- 11) Mikel Gurea Sub12 – 5 puntu.
- 12) Larre A – 4'5 puntu.
- 13) Paz de Ziganda Ikastola B – 3'5 puntu.
- 14) Gazte Berriak B – 3'5 puntu.
- 15) Zizur-Ardoy – 3'5 puntu.
- 16) Mikel Gurea Burlada – 3 puntu.
- 17) Arrano Elkartea C – 3 puntu.**

2006-10-21.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.